

8. AE klasikoaren sistema fonologikoa: oinarriak eta emaitzak. Ustezko alternatibak eta sistema zaharragorako urratsak

Sistema fonologiko desberdinak proposatu izan dira AErako.

Uhlenbeck-ek (1909-1910) uste zuen hitz hasierako ahoskabea ahostunduko zela bokal arteko *-k*-rekiko disimilazioz. Baina halako disimilazioak ezezagunak izateaz gain, ahostuntzea bokal arteko herskari ahoskaberik ez duten hitzetan ere jazo dela dakigu (adb: *gerezi, gela, bilo*).

Gavelek (1920) ez zuen azalpen hori onartu. Bere ustez hitz hasierako herskari guztiak ahostunduko ziren erregulariki lehen maileguak hartu eta gero, zeren eta oro har, euskaraz oso hitz gutxi hasten baitira herskari ahoskabez, eta salbuespen horiek erraz azal daitezke beste era batera (mailegu berriak, euskararen barruko ahoskabetzeak, fonosinbolsimoak...). Bi abiapuntu jotzen ditu posibletzat (berak bigarren hobetsi):

- | | | | | |
|----|------|----|-----|------|
| 1. | *-p- | 2. | *p- | *-p- |
| | *p- | | | |
| | *-b- | | *b- | *-b- |

Lehenengoan, ez dago azaltzerik zergaitik bereizkuntza gehieneko kokagunean (hitz hasieran) ez den ahostun / ahoskabe bereizten, ez eta zergatik horko ahoskabea ahostun bilakatu den. Ahostuntasunari buruz dakigun guztiaren kontra doa.

Bigarreanean, kontuan izan behar da aurrekoaz gainera, inguruko hizkuntzek ahostun / ahoskabe sistema dutela betidanik eta, beraz, indar handia egingo zutela oposaketa mantentzearen alde.

Martineten iritziz, oro har Gavelen azalpena arrazoizkoa da: badirudi euskarak joera handia zuela herskariak hitz hasieran ahostun gauzatuko zen fonema batez bakarrik ordezkatuta egoteko, hitz bukaeran ahoskabeaz eta hitz erdian (guztiz bokal artean) bi fonemaz, bata ahoskabe (batzuetan hasperendun) eta bestea ahostuna.

Martineten proposamena: hitz hasierako ahostuntzea inguruko erromantzeen eragin handiari egotzi behar zaio Martineten ustez. Eragin horrek, behin betiko aldatu zuen lehenago zeharo ezberdina izan zitekeen euskararen kontsonante sistema.

Ahostuntasunaz gain beste zerbait behar da sistema hau ezaugarritzeko: abiapuntua *fortis / lenis* oposaketan dagoela proposatzen du. Bi herskari sail egongo ziren: bortitzak (P, T, K) eta ahulak (p, t, k). Euskara zaharrean, neutralizazioa ahulen alde eman zen (b/d/g) eta hitz barnean oposaketan daude ahul zein bortitzak (b/d/g edo p/t/k).

Herskari bortitzak hitz hasieran hasperendun ahoskatuko ziren, bokal artean berriz, hasperenik gabeko ahoskabeak izango ziren. Herskari ahulak hitz hasieran ahoskabeak omen ziren eta bokal artean espirante ahostun.

Gavelek azaldu bezala, sortuko zen geroago hitz hasieran ere aurkitzen dugun herskari ahoskabeen saila, eta inoiz hauetariko zenbait fonetikoki hasperendun egin dira.

Mitxelenak Martineten sistema onartu eta sistema kontsonantiko osora zabaltzen du. Hiru arrazoi ematen ditu +/- bortitz oposaketaren alde:

(a) Geminatu eta leherkari talde ahostun eta ahoskabeek emaitza berak dituzte euskaraz (ahoskabearen alde), eta ezberdinak erromantzeetan (+/- ahostun mantentzea baita garrantzitsuena). (Geminatuak bortitzen bidez adierazi). Adibidez: *sabbatu* > *zapatu / sabado*.

(b) [f] soinua. AErako ez du proposatzen. Euskaraz modu arraroan portatzen dela dio, batekin edo bestearekin jokatzeko baita, edo ahostun edo ahoskabe.

(c) Akitanierazko eta Erdi Aroko lekukotasunak, non herskariak *tt / th* adierazten diren.

Beraz, berreraiketa konparatua (ahal zen neurrian) eta bereziki barne-berreraiketa aplikatuaz, AEn fonologi sistemaren berreraiketa burutu zuen. Martinetek herskarietarako proposamena sistema guztira zabaldu zuen., bortitz / ahul oposaketa kontsonante sail guztietan zegoelakon, /h/az landa.

Gaurko euskaran dauden hots batzuk albo batera utzi zituen:

- /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/ren alofono gisa agertzen baitzen.

- Hots palatalak: euskara historikoan hots adierazgarriak dira, edo automatikoki sortuak (sekundarioak). Izatekotan sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera.
- /m/: AEn ez zegoela uste izateko arrazoi anitz dago. Maileguetatik eta fonosinbolismoetatik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/ren alofono gisa bakarrik baitzegoen.

AEn sistema eta ondoko bilakaerak ezagutzeak, ondare zaharreko hitzei buruz aurrean egiteko aukera ematen digu. Orokorrean, sistemaren barruan sartzen ez den edozer ondoko hauetariko bat izan behar da: mailegua, hitz fonosinbolikoa edo beranduagoko aldaketa baten ondorioa.

Traskek (1985) garrantzi handia ematen die neutralizazio batzuei, *lenis/fortis* sistema “egiazko” batean (adb: hizkuntza zapotekak) ezinezkoak direnak bere ustez. Adibidez:

1. Ahula + ahula= bortitza (bortitz / ahul nahasi ez: *Erreg(e) + bide*> *errepide*)
2. Latinezko bb >eusk p (*sabbatu*> *zapatu*).

Honetan oinarrituta askoz sistema bakunago bat proposatzen du, kontsonante sail bakarrekoa: p, t, k, s, ś, n, l, r. Testuinguru batzuetan, bokal artean nagusiki, geminatuak agertuko lirateke. Traskek, luze / labur oposaketa proposatu zuen, aurrekoen bortitz/ ahulen aurrean. Baina autoreak berak atzera egin zuen bere 1997ko liburuan eta Mitxelenaren sistemara bueltatu zen.

Hualdek (1997) garrantzi handia ematen die, kontsonante ondoko posizio askotan gertatzen diren neutraltzeei: *haritz+di*> *harizti*, *ardan+tegi*> *ardandegi*... Bere ustetan, datuen arabera ez dago herskari sail bietan AEtik gaurko euskarara funtsezko aldaketarik proposatu beharrik. Aski da aldaketa bakarrekoko hipotesiarekin: kontsonante ondoko asimilazioaren ondorioz, hitz hasierako kokagunean ahostun / ahoskabe oposaketa galtzeko zorian izan zen garai batean, eta gero, alboko hizkuntzen eraginez oposaketa berriro indartu da.

Esan beharra dago Traskek eta Hualdek hiru akats dituztela amankomunean: ez dute sistema osoaren alternatibarik proposatzen, ez dute etimologia berririk gaineratzen eta datu asko ez dira AEtik, Erdi Arokoak eta beranduagokoak baizik.